

balake

2004ko UZTAILA,
123. ZENB. DOHAINIK



Errauste plantarik?
Ez eskerrik asko!!

HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea

tel.: 943 86 15 45

faxa: 943 86 17 42

email: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

email: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea

Esther Etxeberria

Xabier Azkue

Koordinatzailea

Juan Luis Romatet

Kazetariak

Itsaso Ibarra

Maitane Urbiet

Gurenda Serrano

Itziar Garate

Kolaboratzaileak

Miriam Romatet, Dani Carballo,
Belen Golmaio, Abelin Linazisoro,
Haize Galarraga, Xabier Aranguren,
Karmelo Arroiabe, Gorka Ormazuri,
Xabier Aizpurua, Ibon Aizpurua,
Izaga Garzia, Beñat Fernandez de
Arroyabe, Ihintz Linazisoro, Jon
Maia, Eguzki Agirrezabalaga, Natur
Taldea, Ander Hormazuri, Aitor

Manterola.

Argazkilaria

Eva Franco

Diseinua eta maketazioa

Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa

Imanol Azkue

Publizitatea

943 86 15 45 tel. (Esther)

Inprimategia

Antza

Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

1.000 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN


1136-8594

Baleikek ez du bere gain

hartzten aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien erantzukizunik.

aurkibidea

librean	4
erreportaia erraste planta	6
gizartea gizarte baliabideen zentroa	12
ibilbideak: santa engrazia	14
olarro zopa	17
orain hamar urte	18
kirolak	19
arrauna triatloia	
gure zumai zarra	
jexux etxabe mitxelena	24
kultura	28
bertsoak agenda	



gure zumai zarra
**jexux etxabe
mitxelena**
“Ondo moldatzen
ginttuan euskerarekin.
Gerra zikin hura sortu
eta dana puskatu
zuen arte”

Argitalpen honen edizioko laguntzaileak:



Zumaiako Udala



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



kutxa

gizarte ekintza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA

Steve McQueen in memoriam

Koldo Landaluze



Ume baketsuoi beti gustatu izan zaizkigu Warner etxeko marrazki bizidun eroak. Bazirudien denok gure baitan daramagun Mr. Hyde horrek ametsezko bake moduko bat sentitzen zuela, Correcaminos gorrotagarria harrapatu nahian, Coyote gaixoa zorabiatuta erortzen zen unean.

Urteen poderioz, beste Ni sumindu horrek adrenalina dosi birtual handiagoak behar izan zituen eta hara non topatu zituen, Steve McQueen-en bat-bateko azeleroiekin argitzen zen zinema areto ilunean.

Gaur, benetan eskerrak eman nahi dizkiet ustez galduta

nituen oroitzapenak etengabe berreskuratzen laguntzen didatenei. Ezin hobeto kokatuta bizi naizenez (San Jose Kaleko aldaparen eta bihurgunearen artean), ia egunero eta orduro azaltzen da beste Ni erretxinduren bat –hau da, hormonak borborka dituen nerabea–, nire entzumen atrofiatuaren gozamenaroko derrapatzen eta azeleratzen zaratatsu eta ozen aritzen dena, McQueen berak zegokion gaizkilearen atzetik San Frantzisko aldapetan edota motozikleta zahar baten gainean tropa alemanen atzetik ihesi egiten zuen bezalaxe.

AMA, BILDURRA!!

Inaxio Manterola

Lerrotxo hauek idazten hasi nintzenean, ez zen nire asmoa gai hau jorratzea, baina azken denboraldiko berriek beldur galanta eragin didate. Zaborrak erretzeko plana eta kokapen posibleak ezagutu nituenean akononatu nintzen. Dragaren kontu honek denok ahaztuta ditugun denboretan gertatutakoa dirudi, baina ez, gaur egun eta hemen bertan gertatu da.

Orain lau urte, Zumaiako barra dragatzeko lanak hasteko zirenean, ingurumenarekiko eta osasunarekiko arazoak zirela medio geldiarazi egin zen eta orduan eman ziren arazoak Osasun Sailak bidalitako gutun batean ikus ditzakezue:

"(...) Las actuaciones de este tipo requieren del informa favorable de la Viceconsejería de Medio Ambiente, organismo que en este tipo de actividades, dadas las características de la zona y su uso, fundamentalmente en época estival, suele solicitar la valoración del Departamento de Sanidad. A este respecto, la postura que siempre hemos mantenido en todos los proyectos en los que está implicada una playa en la que se ejecutan obras que incluyan dragados y

vertido de arena u otros materiales en su entorno, ha sido la de desaconsejar que dichas actividades se realicen en el periodo comprendido entre junio y septiembre, temporada oficial de baño. Las razones que justifican esta posición son los posibles riesgos para la salud de los usuarios de estas zonas. Además nuestro Departamento, una vez visto el proyecto de las actividades a realizar que el organismo promotor debería presentar, emite las consideraciones oportunas en relación a aspectos como: las garantías de vigilancia en el periodo de ejecución de las obras, las medidas de seguridad, la calidad de los materiales vertidos y la compatibilidad de los mismos con los de la zona en que van a ser vertidos, entre otros aspectos.

Por lo tanto, nuestra opinión en relación con el inicio del dragado, depósito y vertido final del material extraído en la bocana del puerto de Zumaia, es que dicha actividad no debe ejecutarse hasta finalizada la temporada oficial de baño.

Gabriel M^a Inclán Iribar
Consejero de Sanidad"

Aurten, señorito batzuk bere beleritoe-tan estropada dutela eta, derrigorrezkoa dirudi hondartzako denboraldi hasierarekin batera dragatzea. Aipatu ditudan

aberats berri hauen interesen aurrean, herriko agintariek, Ingurumen Saila eta Osasun Saileko arduradunek makurtu egin dute beraien burua eta edozein aitzakia asmatuko dute bere postura onartezina justifikatzeko.

Ni, nire bateltxoarekin Santixora azaltzen baldin banaiz izugarritzko iskanbila sortzen da, sokorrista bere onetik irtenda, osasun publikorako izugarritzko arriskua bihurtzen naiz eta kapaz dira kartzelara bidaltzeko. Milaka tona hondar mugitu behar duen draga ez da, ordea, arriskutsua, hondar garbia mugitu behar omen du eta.

Dragaren kontu hau oraindik ere gehiago ere luza daiteke, jakinez gero hondarra hemendik hartu eta Orion botatzen ari direla, gero handik berriz jaso eta Pasaia eramateko halako batean. Gastuak bikoiztea oso errentagarria da, dirudienez.

Hau dena ikusita, eta gure osasuna, ingurumena eta aurrekontua zeinen eskuetan dagoen kontuan hartuta, Errauste plana bezain gai arriskutsua hauen ardurapean uztea tximino bati bonba atomiko bat ematea baino astakeria handiagoa iruditzen zait. Hori bai, zaindu ingurua eta jarri floreritoak bazter guztietan.

Babes ofizialeko garajjak

Motellak! Eztek giro!

Kronika hau hilerro in bihar gendula benetan kontuatu nitzanian pentsatu nian:

-Ta notiziyak? Ze kontatua eongo ote dek Zumaian? "Zaharra berri, gaztien amorragarri" esate zian gure amonak, bere amonak ala eakutsita.

Ta halaxe esan nitxien kuadrillakuei:

-Kronika danon artian in bihar diau bai, ta badakizue, notiziyak bihar dizkiat, notiziyak. Ta ez badao asmatu, baña asmatzekotan ona asmatu.

Eta, motellak, aspaldian notiziya besteik etziok.

-Hi Joxe Luis —Juan Marik— ikusi al dek nolako draga datorren erriyuan gora? Hori bai barkua ta ez garai bateko gabarra zahar hura!

-Guain etorri bihar al zian horrek lokats dana altzatzea? —Juakinek aldamenetik— Umiak erriyuan bañatzen dian sasoian? Lotsik ez!

-Hi Joxe Luis —Karlosek— geraniyuak jarri dixkie karretera generalian!

-Hi Joxe Luis...

Ta Joxe Luis letxe batian.

-Hi Joxe Luis —Damianek, adar jotzen— nun aparkau dek ?

-Gaur eztiat kotxeik ekarri, mollar arrasto oker hoiiek pintau dixkie-netik etziok aparkatzeik eta. Gañia ibiltzia ona omen dek.

-Bai motel, egunian egunian kotxe geio ta geo ta leku gutxiyo —Karlosek—. Ta uda hasi baino eztek in. Eon hai kanpotarrak arrimatze txukenian nolako festa.

-Baña nola aparkatuko dek ba udan, neguan nahiko lan izaten dek

eta astebukaeran. Garai batian Larretxo omen uan problema, baina gaur egunian zubi txikitik barrura etziok aparkatzeik. Eta zubi txikitik kanpoa e kostata.

-Badakizue ze in bihar dezuen, Garajia erosi ta kitto. —Juan Marik—.

-Igetze zak bai etxe onekoa haixela. Garajia erosi esaten dek? Ta dirua zeñei lapurtuko ziot, hiri?

Hor jardun diau, estalopian, txikiteoko ordua artian, geo baxoerdiak nahiko lan eman ziu, baña erretiran nijuala

zea pentsatu diat: "Zeatik ez ote dia babes ofizialeko garajjak iten? Iten dia, ba, etxienak? Ta garaje biharrik ez al dao, ba?"

Ta halaxe hitzein diat kuadrillakuekin eta danok "de akuerdo" behingoz (bueno, Juan Marik ezтик arpei onik jarri baño horrek bazikak garajia), iruitzen zikuk babes ofizialeko garajjak itiak asko hobetuko lukela bertakoen aparkatzeko arazua. Bazikiu askok parregarritzat hartuko duela (seguru garajia badakela), baña bitartian batzuk nazka nazka inda gatxibek aparkatzeko letxe horrekin; kotxeiko inpuestua kobratzeakuan earki akordatzen dia zenbat kotxe daben.

Autoridadiak babes ofizialeko garajetxo batzuk in eta hiru mila euroan edo salgai jartzia bai izango zala lore ederra, zimeltzen ez dan hoietakua.

estalapetik



Joxe Luis



Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 943 862051

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**



Auto-konponketak

ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



Nahizta Izarraitz ikusi ez

Eneko Dorronsoro



Etzait ezagun egiten papelan aurrian jarri eta zer idatzi? burua hausteko modu hau. Eta ez da papelan aurrian jartzen naizen lehen aldia dalako! Ze sinisten zaila eman arren, lehen ere idatzi aurretik pentsatu in izan det (bale, ez gehiegi, baina -egi danak txarrak dian neurrian). Ta ez da gezurra. Gure etxetik Izarraitz ikusten da parez pare, balkoira ertenda. Hark ez du Torrent del'Olla danik ere aitzera izango, baina oain salako balkoitik beiratu nahiz gero, kale honen etxeek tapatzen diate Izarraitz. Ta papela txuriago. Hala ere pisukide txiletarrak sumatu du nungua zea?ren antzutasuna ze, zumaiarra?ren aurrean. Azkena Goiz Eder eta Otolari. Beti izango baitu ze idatzia papela txuri dagon artean. Olarru zopa beti izango da olarru zopa. Eta astuan buruik ezingo da falta arrai zopa on batian. Deakuero. Baina Mediterraneoak ere ikasi du harkaitzak kolpatzen. Nahizta Izarraitz ikusi ez. Zuk aurrian Izarraitz izanik, nun jartzen dezu papela, Antxoka?

Astuan burua nola aprobetxatuko zenuke?

Antxoka Agirre



Papel txuriarena batzutan ez da samurra izaten. Okerragoa da kumuneko papelik gabe gelditzea, adibidez, baina honek ere badauka bere intringulisa eta apuruba.

Balkoira irten det ispirazio bila. Egia esan Izarraitz ezin det ikusi, Torrent del'Ollako balkoi hortatik baino gertuo nagon arren parean etxe blokea baitaukat nik ere. Ekialdera begira dauzkat bista hobeak: Inda-mendi bere piñu-krestarekin, Ibañarrieta, San Migel, Askizu aldea ... Eta azken aldian inguru hauetako hautsak harrotzen ari dan errausketa plantaren kontua etorri zait ondora. Badakigu batzutan herriaren ordezkariak herriaren borondatearen kontra jarduteko ez dutela eskupulo haundirik izaten, eta usaia hartzen diot labearen tximini erraldoiak Arruan edo edonon jarrita ere zumaiarrak galtzen ateako geala, oso sistema zikina baita hau. Espero dezagun bestelako politika eta alternatibak ere ondo aztertzea, eta gauzak behar den bezala informatu eta herritarren iritzia errespetatuz egitea. Bueno Epi; orain zuri tokatzen zaizu gure hitz hauek birziklatzea. Astuan burua nola aprobetxatuko zenuke? arrai zopa egiteko, transplanteren bat egiteko...

Loreak, astoen askara!

Xabier Aizpurua



Olarru zopa egiten oraindik ez diat ikasi, baina gure inguruko astuen buruak non dabilzan hartu zioat traza azken aldian. Badakik herriaren ordezkariak aspaldi utzi ziotela herriko langileak hartu eta lanpostu duinak sortzeari, eta buru-belarri sartuta dabilzala azpikontrataturako enpresekin eskuak garbituaz, superabitekin harro. Nola da posible, diru publikoa esku pribatuetara bideratzea? Buru, belarri eta esku, denak gauza politikan ez duen eskubiko politikan esku utzita. Baina lasai, garapen jasangarriari BAY esan diotenetik bazirudik ying-yang moduko batean sartuta daudela-eta.

Batetik, errausketa plantak egiteko asmo sendoa diate, baina bestetik, plantak eginez zebiltzak erroak nola sendatu asmatu ezinik. Garapen jasangarriaren planean sartzen al da herria lorontziz jostea?

Soineko berrizat hartu behar dugu ekimen lorezalea, edo padurari egin zioten tarratari jarritako petatxo ekologiko bezala joenezake? Aspaldi batean gu ere Lore autobusean joaten ginen ikastolara, eta orain bizitza loratu zaigula konturatu garenean, zer esango dizuet, ba, beren buruei loreak botatzen dabilzan tximini ttentteak ez zaizkidala zipitzik ere gustatzen. Portzieto, non arraio dago Torrent dell'Olla dalako hori?? Mxk

Errauste planta Arroan koka daiteke

Uztailaren 19an erabakiko da behin betiko kokapena



ITSASO IBARRA

Gipuzkoako Foru Aldundiak zaborraren arazoari irtenbidea emateko bi errauste planta zabaldu nahi ditu. Bat non kokatuko den zehaztuta dauka jada Diputazioak; bigarrena kokatzeko, ordea, oraindik bederatzi gune dituzte mahai gainean. Horiatariko bat Arroa Behea dugu.

Zaborra erretzeko planta bat Gaintxurizketan (Hondarribian) eraikiko dute, hala erabaki baitzuen, Irun, Hendaia eta Hondarribia bere baitan biltzen dituen Txingudiko mankomunitateak. Ekainaren 28an Foru Aldundiak aurkeztutako txostenaren arabera, honakoak dira bigarren errauste planta ezartzeko hautagaiak: Bergara (Aldeta-San Kristobal), Villabona (Anasamendi), Usurbil (Arpita-zaharra), Zubieta (Eskuzaitzeta), Donostia (Loistegokogaina), Urnieta (Pagoadarraga), Ormaiztegi (Sasieta I), Beasain (Sasieta II) eta Arroa (Oli-den). Errauste planta horrek zazpi mankomunitatetako zaborrak erreko lituzke.

Bederatzi gune horiek aukeratzeko, hainbat faktore aztertu ditu Aldundiak. Horretarako, besteak beste, honakoak izan ditu kontuan: lekuaren egokitasuna, ingurumenean dituen eraginak, sarbide sistema, iristeko erraztasunak, ezarpen kostuak eta transferentzia eta garraioaren kostu eta eragina.

Aurkeztutako txostenean zehazten denez, Donostia, Usurbil eta Zubietako kokalekuak “oso egokiak”



Urnietako Arnasa taldeko Mikel Izagirre Alondegian eman zuen hitzaldian.

dira errauskailua ezartzeko. Arroa, Urnieta, Beasain, Ormaiztegi eta Villabona, berriz, “nahiko egokiak” dira eta Bergarakoa “ez hain egokia”. Gainera, Garapen Iraunkorreko diputatu Luis Mari Oiarbidei hedabideei adierazi zienez, “aztertutako aldagai guztiak kontuan hartuta, Bergara eta Arroako aukerek besteak baino aukera gutxiago dituzte”.

Uztailaren batean, Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketarako Plan Integralaren Jarraipen Batzordeak bilera egin zuen. Bertan, aukeratuak izan diren mankomunitateetako, udaletako eta Aldundiko ordezkariak izan ziren. Bileran, bederatziguneeetatik sei kendu eta hiru gunek posible uzteko asmoa zuen aldundiak. Hala ere, Donostialdeko manko-

munitateek eskatuta, erabakia atzeratu egin da. Horrela, uztailaren 19an bigarren errauste plantaren behin betiko kokapena erabakiko dute, aurrez kokagune posibleak baztertu gabe. Erraustegiaren kokalekua bozketa bidez erabakiko da. Bertan, zazpi mankomunitateek eta zortzi alkateek izango dute boto eskubidea. Kokalekua gehien-
goz erabaki beharko da.

Mobilizazioak

Errauste planten sorrerak hainbat erreakzio sortu ditu Gipuzkoan barrena; izan ere, erraustegiak hainbat kalte eragingo ditu. Mugimendu hau zabalduz joan da, erraustegien kokapenerako gunek berrien izenak agertzen joan diren heinean. Horrela, ekainaren 19an manifestazio jendetsua egin zen Donostian. Bertan izan ziren Urnietako Arnasa, Txingudi Bizirik, Lasarte Oria bizirik, Zubieta, Usurbil, Hernani, Errenteria, Lezo, Oiartzun eta Arroako errauste plataformen aurkako taldeak. Manifestazioaren buruan nekazarien traktoreak joan ziren, errauste plantek beren lurretan eta produktuetan izan ditzakeen kalteak salatuz. Horien atzetik, jende andana bildu zen *errauste plantarik ez lema eskuetan zutela*.

Arroako hiritarrek ere mobilizazioak egin dituzte. Horrela, Aizarnazabalen ospatutako Eskola Txikien jaietan izan ziren informazio banatu eta protesta egiten. Elkarretaratzeak eta manifestazioak ere egin dituzte Zestoan. Bestetik, ekainaren 21ean bailaran Urola-

Kosta Bizirik herri plataforma sortu da errauskailuaren aurkako mugimenduak eta ekimenak bideratzeko. Hilaren 24an, 400 lagun inguruk hartu zuten parte *Errauskailurik ez, ez Arroan eta ez inon* lemapean eginiko bilkuran. Hilaren 26an, berriz, 1.200 lagun inguruk manifestazioa

Errauste planten
sorrerak hainbat
erreakzio sortu ditu
Gipuzkoan barrena;
izan ere, erraustegiak
hainbat kalte
eragingo ditu.



- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitik eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517



Tel. 943 143379




egin zuten Zestoako kaleetan zehar errauskailuaren aurka.

Urola-Kosta Bizirik plataformako kideek 2003an herrialde ezberdinetan egindako ikerketetako datuak dituzte. Horien arabera, errauskailuak inguruan ekoiztutako produktuak kaltetuko lituzke; bestetik, osasunean ere hainbat kantzer mota garatzeko arriskua areagotzen da. Puntu hauek kontuan hartuz, beraiek galdera hau egiten dute: instituzioek zergatik ez gaituzte erraustegien ondorioez informatzen?

Bai ala ez?

Informazioa zabaltzeko hainbat hitzaldi antolatu dira, eta horietako bat Alondegi zaharrean izan zen. Bertan, Mikel Izagirre Urnietako Arnasa taldeko kidea izan genuen, erraustegiari bai ala ez lema hizpide.

Mikelek erraustegiaren funtzionamendua, errauskailuen inguruan zabaldu diren ideiak eta benetan erraustegi batek dakartzan kalteak azaldu zizkien Oxford aretoan bildu zirenei.



ad

**AUTOS
ZUMAIA**

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85

Kresala
Taberna

Julio beobide 3, tfno. 943 019 869

ALTZARIAK
OSTOLAZA
AROEZTEGIA



Mota guztietako
altzariak eta
aroztegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325

Arnasa taldeko kideak, errauste plantaren aldekoek errauskailuaren metodoa ezagutarazteko zein teoria erabili duten azaldu zuen lehenik. Haientzako, errauste planta batean beste bide batzuetatik tratatu ezin den zaborra erretzen da. Gainera, zabortegiak desagertu eta elektrizitate sortzen du. Bestetik, ingurunean eta osasunean ez du kalterik eragiten. Mikelek jarraian, teoria hori hala ez dela frogatzeko datuak eman zituen.

Errauste planta batean hiru hondakin mota erretzen dira: etxeko hondakinak, industria, komertzio eta asimilatutako beste hondakinak eta araztegiatan sorten diren Edar lohiak. Hondakinen arazo handiena, materia organikoak sortzen du, hots, usteltzen den guztiak. Hondakinaren hirutatik bat materia organikoa da. Materia hau, sailkatuta bideratuko bagenu zabortegietara, arazoaren erdia baino gehiago bideratuta edukiko genuke. Izan ere, materia organiko guztia konposta daiteke. Industri eta komertzioetako hondakinei dagokionez, gehienak birziklatu edo berriz erabil daitezke. Lohiei dagokionez berriz, denak konposta daitezke. Beraz, gutxi gorabehera 3.000 tona joango lirakeke erraustegira; gurean, ordea, 140.000 tonako erraustegia sortu nahi dute.

Bestetik, erraustegietan dagoen kontrol eza ere azaldu zuen Mikelek. Izan ere, erraustegietara hondakina sartzen den eremuan ez dago kontrolik; horregatik, amaieran zer

irteten den zehaztea ez da erraza. Erabateko kontrola amaieran bakarrik egiten da. Bestalde, dioxinen kontrola oso gutxitan egiten da. Sortzen denean egiten dira kontrol gehienak, baina, ondoren dioxinak aztertzeke dirutza behar denez, gutxitzen joaten dira azterketak.

Erraustegia sortzearen aldekoek zabortegiak desagertuko direla diote, baina, erraustegi batek sortzen dituen eskoriak eta errausak biltzeko zabortegi bereziak behar dira, hondakin arriskutsuak biltzeko. Gainera, Euskal Herrian ez dago hori lantzeko zabortegirik. Bestetik, sortutako hondakin

horiek garraiatzeko 150etik 180 kamioi bitartean ibiliko lirakeke gure errepideetan.

Elektrizitatea sortzeko bide bezala aurkeztu dituzte erraustegiak. Erraustegi batek, ordea, 300.000 Mw sortzen ditu urtean. Donostiak, neguko zortzi egunetan gastatzen duen argia, hain zuzen ere.

Jarraian, osasunean dituen ondorioak azaldu zituen Mikelek. Beti ere, hainbat lurraldetan egin diren ikerketak datuak azalduz. Azterketa horien arabera, errauskailutik bi kilometrora kantzerra garatzeko arriskua 31,4 aldiz handiagoa da. Bestetik, plantatik, 7,5 kilometrora haurrek leuzemia edo minbizia garatzeko arriskua bikoiztu egiten da. Kontuan izan behar dugu ondorio hauek jasateko arrisku gehien dutenak gazteak eta haurrak direla.

Erraustegi batek
sortzen dituen
eskoriak eta
errausak biltzeko
zabortegi bereziak
behar dira

Alberdi

Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155



GAZTE, S.L.

ELEKTRIZITATEA


ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabilioi eta herriko argietan

Trenbide 5.pabilioia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 23
Tel. mugikorra: 608 143409

B. Etxegarai 2., behea
943 86 27 14



GAZTEEN ERROPA

LASER BIDEZKO DEPILAZIOAN ESPEZIALISTAK



Gorputzeko edozein ataleko ileak kentzeko sistema berriak aurkezten ditu.

- Argiaren bitartez egindako depilazioa "luz pulsada (fotodepilazioa)
- Laser ND-YAG (40J.)

Bien arteko konbinaketarekin tratamenduetan azkartasun eta eraginkortasun handiagoa lortzen da.

BANAKAKO AURREKONTUAK

Bonifacio Etxegarai plazatxoa z/g. Tel: 943 861 322

Azkenik, erraustegi planta baten sorrerak eta mantentzeak dakartzen kostu ekonomikoak jakinarazi zituen. Planta baten sorrerak 10.000 milioi euroko inbertsioa egitea dakar; bestalde, 1.100 milioi eurotako gastua urtean.

Laburbilduz, hasieran hartutako ideia gogoan hartzen badugu, honakoak ditugu Arnasa taldeak erraustegiaren inguruan azaldutako ideia nagusiak: Berrerabili, konposatu eta birziklatu daitekeena erretzen da; osasun eta ingurumeneari kalteak sortzen ditu; energia gutxi sortzen du; elementu toxikoak biltzeko zabortegi bereziak behar dira; eta garestia da.

Ondorioak

Arnasa, Urnietako taldeak errauste plantek osasunean sortzen dituzten kalteen inguruko hainbat txosten eta datu bildu ditu. Horien arabera, honakoak ditugu erraustekailuek dakartzaten ondorioak:

- **Leuzemia edo minbizia:** Haurrek garatzeko arriskua bikoiztu egiten da errauste plantatik 7,5 kilometro inguruan. (E. Knox, Erresuma Batua, 2002ko ekaina)
- **Gibeleko minbizia:** garatzeko arriskua, 31,4 aldiz handiagoa da errauste plantetatik kilometro bateko inguruan (Imperial College Of Medicine, Londres, 2000ko martxoan).
- **Fetuaren mutazioa eta malformazioa:** Cumbriako (Erresuma Batua) errauste plantaren inguruko herrialdea aztertuta, fetuaren mutazioa eta malformazioa % 17 hazten dela ohartu dira zientzialariak. Bihotzari lotutako arazoek, berriz, % 12 egin zuten gora (P. Parker, New Castle Unibertsitatea, 2003ko iraila).
- **Ehun biguneko minbizia:** minbizia garatzeko arriskua 31,4 aldiz handiagoa da errauste plantetatik 10 kilometro inguruan (Mantuako Institutu Medikua, Italia, 2003ko iraila).
- Elikadura: **dioxina** gehienak janariarekin batera sartzen dira gorputzean, batez ere esnea eta barazkiak janda. (Flemish Institute, Belgika 2001keko maiatza).
- Bizitza kalitatea: egunero 150 kamioien joan-etorria, **kutsadura, zarata eta istripu arriskuak** aipatu ditu Arnasak.



dekorazioa

ALBERDI

696 726188
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a



TXINGURRI

Koop. Elk.

Nekazaritza Injineru Teknikoak

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3º 20.800 ZARAUTZ
(GIPUZKOA)

Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu
... mantenimendua

Nekazaritza zerbitzuak

Kirol zelaien mantenimendua

Txostenak ...
ahalgaritza teknikoak.

Balorazioak



Arrain eta
mariskoak

Barazkiak eta
aurrez prestatutako
jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 943862309

"Branka" Gizarte Baliabideen zentroa zabaldu da Zumaian



GURENDA SERRANO

Gizarte zerbitzuetako bulegoei eta zerbitzuei astindu ederra eman diote Zumaiaiko Udalekoek. Herri guztietan bezala, Zumaian ere gero eta pertsona nagusi gehiago dago; beraz, egun eta etorkizunean sor daitezkeen beharrei begira egokitu dute "Branka" Gizarte Baliabideen zentro berria. Ondorengo lerroetan era labur batean zentro berriaren informazioa bildu nahi izan dugu.

Uztailaren 1ean Aizkorri kalean 4. zenbakian gizarte baliabide garrantzitsuenak bildu dituen gunerekin inauguratu zen. Bertan, alde batetik, gizarte zerbitzuetako bulego berriak eta gizarte gaietan lanean ibiltzen diren tal-

deentzat hiru bilera gela kokatu dira: eta beste alde batetik eskaintzen dituzten bi zerbitzu berrien zentroak: erabilera anitzeko apartamentuak eta eguneko zentroa.

Erabilera anitzeko apartamentuak babestutako 16 etxebizitzaz daude osatuta.

- 4 estudio 51,55 m²-koak, Hauek pertsona batentzako gunerekin bakarreko espazioak dituzte eta elbarrituentzat egokituta daude.
- 6 estudio 43,30 m²-koak, logela gunerekin nagusitik banatuta duten pertsona batentzako etxebizitzak.
- 4 apartamentu 54,65 m²-koak, logelaz eta sukaldetxegaz banatutako bi pertsonentzako etxebizitzak.
- 2 apartamentu 80,60 m²-koak, bi logela, bi komun eta sukaldetxegaz banatutako famili batentzako etxebizitzak.

Helburuak

Helburu nagusietakoa da, eguneroko bizitzako gauzak egiteko arazo larriak izan ez arren, euren ohiko etxeetan bizitzeko jarraitzeko zailtasunak dituzten pertsona nagusiei laguntza ematea; horretarako pertsona horien autonomia bultzatuz, fisikoki ahal den ondoen mantenduz, psikologikoki zainduz eta gizarteari begiratuta besteekiko harremanak bultzatuz.

Babestutako etxebizitzak horien zerbitzua erabili ahal izateko honako baldintza sozio-familiarrak bete behar dira: etxebizitzak propiorik ez edukitzea edo duin bizitzeko gutxienezko baldintzak ez edukitzea, arazo psikologikoak

amaiako plaza, 2
Tel. 943 143278

Maite
ilepaindegia

Malaur

ert
informatika

tresna digital
internet
scanner

Eusebio Gurrutxaga, 6
Tel. 943 14 33 95

DALAC
COMPUTER



edo bakardadeko arazoak izatea, bakarrik bizitzea edota arazo familiarrak edukitzea, arazo ekonomikoak edukitzea, ondorioz etxebizitzako gastuei aurre egin ezinik egotea eta norberaren etxebizitzan arriskuan egotea.

Osasun fisikoari dagokionez, eguneroko bizitzako jarduerak garatzeko zailtasunik ez edukitzea eskatzen da, hala nola: mugitzeko erraztasuna, jantzeko edo jateko arazorik ez izatea. Arauak eta betebeharrak batzuk betetzeko ahalmena duten pertsonentzat dago zuzendua, elkarrekin bizitzeko arazoak ez dituztenentzat bereziki.

Adinari dagokionez, 60 urte baino gehiagoko pertsonak izan behar dira eta autonomoak. Hala ere, ohiko etxebizitza uzteko premia larrian dagoen jendearek ere aukera ematen zaio; hau da, tratatu txarrak jasaten dituzten pertsonen, egoera lazarrietan bizi direnen...

Udalak eskaintzen duen zerbitzua da honako hau eta gai hauetan aditua den enpresa zuzenduko du. Gizarte Baliabide zentro honetan eskainiko diren zerbitzuen artean daude ostalua, mantenua eta garbitasuna, eguneroko jardueretan arreta berezia eta mantentze eta konponketa lanak. Era berean, barnean daude administrazio, aseguru-poliza, ur, argi eta gasaren gastuak ere.

Eguneko zentroa

Gizarte zerbitzuek eskaintzen duten beste zerbitzu berri bat eguneko zentroa da, eta bertan, Aitzgorri 4 zenbakian dago kokatua hau ere. 20 lagunentzako tokia du eta autonomia ez dutenentzat edota autonomia oso mugatua dutenei dago zuzendua. Profesional eta baliabide eguneratuak eta egoienak daude, behar bezala zainduta egon daitezten.

CROISSANTERIA

pizzak
hanburesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719

SIWA
Belardenda

Basadi 9
943 143404

- Elikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajek
- Dietak
- Estetizista
- Solariuna
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak

TALAI

INMOBILIARIA 943 143361
BIDAIAK 943 143323

Ortega y gasset, 1

gofi

haur jantziak

Amaiako plaza z/g Tel. 943 860959

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4 tel: 943 860970

English School

Harvest

Ingelesko klaseak adin guztietan

San Jose, 11 bis Tel. 943 143334



Akuako auzoa Ertxin mendiaren azpian.

ibilbideak

Santa Engrazia erromeria oihartzunak


XABIER ARANGUREN

Eliz ttipi hau inguruko leku askotatik ikusten da, batez ere menditik mugitzen bagara (errekako sakonetik eta ibarretik batere ez). Gipuzkoako leku basatienetako batean kokatua, Ernioko ipar-mendebaldeko mendi hegalean, kareharrizko mendi kokkor hau istorio eta kontakizunez beteta dago. Humboldt bidaiari ospetsuak jada aipatzen zuen bere bidai kroniketan, 1800 urte inguruan. Antzinatek Urola beheko lurraldeetatik Errezil, Ernio, Iturriotz, Tolosaldera eta urrutirago, Nafarroara, joateko hemendik pasa ohi zen. Erromesen topagunea eta merkatarien pasabidea, funtzio militarra ere bete zuen guda garaietan.

Erromesak eta erromeriak ia desagertu egin dira gaur egun, nahiz eta Urolako jende asko hurbiltzen den erromeria egunean bertaraino, erlijioa eta festa bateratuz.

Zestoan hasiko dugu gure erromesaldia. Santa Kruzetik, Azpeitira doan irteerara hurbilduko gara eta errepide azpiko pasabidetik Akuako aldapari ekingo diogu. Pixka bat nekatuta, aurreneko santutxora helduko gara. Ohitura da txanpon batzuk botatzea hurrena konpon dezaten.

Akua auzoa baserriz beteta dagoen zelai lau bat da, mendi artean. Akuan, eskuineko bidetik gora joko dugu, beste perspektiba batzuek gozatuz. Laugune bat pasa eta pista, berri, gora doa. Bihurgune batzuk pasa eta gero Igartza baserrira helduko gara. Gero pinudi bat pasatu eta aldapa motz bat jaitsi ondoren, Ereio Zahar eta Ereio Berri baserriak dauzkagu aurrean, sagastiz inguratuak. Geroago harizti dotore bat topatuko dugu, aldapa goran. Ikuspegia ere dotorea da Izarraitz aldera. Legoia baserrira helduko gara eta berehala bidegurutze batera. Orain ezkerre jo eta segituan eskuinera, porlanezko pista batetik.



Erreferentziak:

- Zestoa: 0 km
- Akua: 1 km
- Ereio baserriak: 3 km
- Ipintza: 4,3 km
- Santa Engrazia: 6 km

Ezaugarriak:

Iraupena: 2-3 ordu
 Luzeera: 6 km (joan)
 Igo beharrekoa: 450 metro

Gorantz berriz, laster Ipintza baserrian gaude eta bertatik, minutu gutxitan, Aizarnatik Etumetara doan errepidearekin bat egingo dugu. Errepidearekin batera segituz, aurrera egingo dugu, eskuinean Eneka Soroeta baserria utziz. Pixka bat aurrerako, beste santutxo bat topatzen dugu. Laster, ezkerreko bidetik hartu eta Santa Engraziako bentaraino eramango gaitu. Atsedean txiki bat hartzeko parada ematen digu inguruneak: mahaiak, zuhaitzetako itzala...

Santa Engrazia basilizaren bila abiatzen gara, galtzada polit bat segituz. Ez du galbiderik. Goian lau haizetara zuzendutako talaia bikaina: iparraldera Zumaia, Indamendi eta Urdaneta; ekialdera Pagoeta eta Altzolako sakonean, Granada erreka; hegoaldean Ernio, Gazume eta Etumetako lepoa eta atzean Aizkorriko ertza; bukatzeko, mendebaldean, Sañu eta Izarraitzeko mendikatea, Xoxotetik Andutzeraino. Azpian Ertxin eta Aizarnako harana.

Kresala
 edergintza

Amaia Plaza
 Tel. 943 14 31 35

- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a

D'Ana
 Fleapaindegia

Kantauri Plaza 6, behea tel. 943 117 406

EGOKI

Erloju eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan



Santa Engraziako basiliza.

Elizatzooan ordulari zahar bat ikusiko dugu. Aipatu nahi genuke teilatua konpondu zenean teila zaharrak menditik behera bota zirela. Penagarria!

Itzultzeko gure pausoak berreginez atzera egingo dugu.

Hagina

Gaurko ibilaldian hagin bakar batzuk ikusteko aukera izango dugu. Aspaldi ugariak ziren, baina, gaur egun noizbehinka ikusiko ditugu, ia beti bakarrik, basoak sortu gabe. 1.000 urte baino gehiagoz bizi daiteke zeltentzat sakratua zen zuhaitz hau. Oso pozoitsua da eta bere fruitu gorria jan daiteke soilik, nahiz eta barnean daraman hazi beltza oso garratza izan.

Gipuzkoako armarrarian agertzen diren zuhaitzak haginak dira baina, agian, armarrria berritzeko ordua heldu da, haginak kendu eta haien lekuan pinuak jartzeko.

GOIKO BODEGOIA
"Betiko Goiko"

Erribera 9 - 20750 ZUMAYA • Tel. 943 861191

EKO URRATS

INK-JET ETA LASER KARTUTXOEN
ERREGENERAZIO ETA SALMENTA

Tel./Fax: 943 143 692 - Juan Belmonte, 2 baje - 20750 ZUMAYA

OSA BARNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412

AR Ricardo J. Azcue Yeregui

Abokatu • Aseguruak
Finka Administrazioilea

txomin aguirre-4, behea
20.750 zumaya (gipuzkoa)
E-mail: rjzcue@euskalnet.net

Tel. 943 862651
Fax: 943 862746

Rosi
garbiketak

- * Etxeak eta dendak
- * Enpresa eta auzo lanak
- * Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 943 861670

olarru zopa

Sukaldaritza

Txipiroiak plantxan, perretxiko pistoaren gainean

O SAGAIK,
4 laguntzat:

1 kg txipiroi.
2 tipula.
2 piper berde.
2 kalabazin txiki.
Oliba olioia, gatza eta
baratzuria.



Nola prestatu:

Pistoa: hartu tipula, piperrak eta kalabazinak eta lauki txikitan zati-tu. Salteatu eta gorde geroko. Salteatu perretxikoak, tipula eta baratzuri pixka batekin. Gorde geroko. Garbitu ondo txipiroiak eta ondo gorritu plantxaren gainean, behar bezala egin arte

Nola aurkeztu:

Plateraren azpialdean pistoa jarriko dugu, perretxikoekin, eta gain-gainean txipiroiak. Bota gaintetik baratzuri frijitua (txiki-txiki eginda) eta perrexila.

On egin!



- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

Juaristi

JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853



Alai auzategia, 2

Tel. 943 14 33 24



- Material guztietako leihoak:
PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua

Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446



juan belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57



Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64



BASUSTA
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

Ondo jaten digu, baina...



...nabarra...
 ra plaza inguruko tabernetan baieka
 bat ematen del, eta gero musian ere
 jokatzen del hogarria. Nere itxura
 da, lagarran bailia jartze; hazi da
 zuzenaz. Hantzen baina betin ote,
 bailia jartze hogarria, eta jodia
 etorriko itzake antzientza.
 Karibidate berak, honako
 Auz: Kapak gaitzen al zaitzite?
 -Bai, auz. Tapak eta beste
 edozein gaitza. Dantak. Nere auz
 ni: txarrago dagoen ere, pusa!

...nabarra, gaitza eta hantzen
 dantak eta, berbestek. Bana ni,
 itzuren ere gaitza. Leku dantetan
 nahi ni errixe txadiazten ote.
 Zumaia lehen edo orain?
 -Orain. Zumaia, auzo
 atzeratzen. Dena zikloa. Makina
 bat zikin garbitze jardun ote.
 ni. Gure ere, zikloa formatzen da,
 bai, baina diferente. Gaitza
 hobeto.
 Festak harbitze orain alen eta,
 ospatuko prest?

baina prestatu in behi
 Deaboa eskorik ere
 Dantak egitea ere gaitza
 baina gaitza oteia jote
 bakarik jotea zuzen plaza
 orain lagunariun jokoak
 egitea la beste gaitza ote
 duc baina dera pusa ni
 ere ez zaitzite gaitza. B
 baina lehen puzatzen?
 hori? heik, dantak, "Tren
 dea" eta besteak. Zati
 jotako, baina zurrak. Nik
 dantak jutzen del.



Herri abak eta ber prest.

aurka egindako manifestazio-
ren berri ere ematen zen.
Etorriko zenaren abisua bes-
terik ez zen izan.

Zenbaki honetan beste gutun bat ere irakur
zitekeen. Ibon Aizpuruak (Oikia forever) auzoan (edo
herrian esan beharko) aterpea behar zela esaten zigan.
"Duela bederatzita urte, hau da, 1985eko irailean, Oikiako
Herri Batzordeak, beste eskakizun batzuen artean, fron-
toi estalia egiteko eskatzen zuen; beraz, behar hori ez da
gaur goizekoa". Ba, lasai egon, beste urte batzuetan zain
egon beharko zenuten eta.

Bi lagun elkarrizketatu ziren uztaileko Baleikerako.
Afrikan, Amerikan eta Alemanian ibilitako Fermin
Leizak hogarria bailia jartzea zuen ilusio handieneta-
koa. Juan Luis Blanco, aldiz, intsumisua izateagatik epai-
tu zuten. Ejertzitoaren desagertzearen lehenbiziko
urratsa armada profesionalaren sorrera ikusten zuen. Ea
hala den!

Gauza batzuk ez dira Zumaian aldatuko. Bai orain
hamar urte, bai oraintxe bertan, arrauna da zumaiar
tertulietako gai fijo bat. "Arraunlariak prest!!" omen zeu-
den urte hartan. Hala zioten, behintzat, Angel
Etxanizek, Felix Aizpuruak eta Jokin Urkidik. Hauetako
bat behintzat oraindik Telmo Deuneko tostetan ikusiko
dugu. Prest egongo al dira aurten ere?

Musikari ere txokoa ireki zitzaion zenbaki honetan. Bi
euskal talde ziren protagonistak, El Inquilino Comunista
eta Deabruak Teilatueta. Batzuek ingelesez abesten
zuten; besteek, berriz, euskaraz; baina biek ere aire berria
ekarri zioten euskal musikari. Hain urrutira joan gabe,
Zumaian, Ubillosko musika eskolan sortutako doinuak
ziren erreportajeko protagonistak.

Koxkortzen hasi zaigu umea. Hilabete bete du dagoeneko
Baleiketxok eta ondo jaten badigu ere, daukan mala letxe-
arekin ez du ondo lo egiten. Buru-belarri segitzen du kirol
portuaren gaiarekin. Herri Batasunekoek (alderdi honek
izen hori zeukanaren urteak gogoan al dituzue?) gutun
bat argitaratu zuten zenbaki honetan, Santixoko paduran
eraiki nahi zen kirol portuaren (eta baita eraiki ere) aurka
agertzeko. Proiektua xantaiatzat jotzen zuten eta esaten
zuten ez zutela onartuko. Gaiari lotuta, kirol portuaren



ERIBERO KALEA 20750 ZUMAIA (GIPUZKOA) TEL. 943 86 19 73

STAIOM

taberna

ORTEGA Y GASSET, 3 943 860151

"Muagi"

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97

Telmo Deuna onenen artean



Traineru denboraldiari hasiera bikaina eman dio Telmo Deunak. Denboraldi hasierako helburua Federazio Ligako A mailako estropada guztietan parte hartzea zen, eta esan beharra dago frogarraz erraz gairak dutela, sailkapen estropadan lehenak izan baitziren "Luxia" Olsagastik entrenatzen dituen mutilak. Hasiara honetan erakutsi duten mailari eusten badiote, gainera, ikurrina bat edo beste Zumaira ekartzea posibletzat jotzen dute.

Uztailaren 3an eta 4an jokatu zen Donibane Lohitzuneko uretan Federazio Ligako sailkatze estropada. TKEtik kanpoko Euskal Herriko eta Kantabriako traineruek hartu zuten parte eta asmoa, klub indartsuenena, behintzat, lehen zortzien artean sailkatzea zen. Izan ere, horrek A mailako estropada guztietan parte hartzeko eskubidea ematen zuen. Lehen egunean sei postu banatzen ziren eta bigarrenean beste biak. 21 ontzi eta zortzirentzako lekua besterik ez.

Aita Mariko arraunlariek ez zuten

igandea arte zain egon behar izan eta larunbatean bertan lortu zuten sailkapena. Lehenak izan ziren, gainera, estropadan, eta bigarrenari, Zierbenari, 7 segundo atera zizkieten. A mailako bederatzi estropadak jokatu dituzten beste sei ontziak hauek izango dira: Arkote, Urkirolak, Santander, Ondarroa, Getaria eta Pontejos. Sailkatze estropada honetan sorpresak ere izan dira: aurreko urtean TKE ligan aritu zen Zarauzko trainerua A mailatik kanpo geratu da. Zarautz ez da izan, ordea, kanpoan geratu den klub indartsu bakarra; izan ere, Arraun Lagunak-ek eta San Pedrok ere B mailako zenbait estropada jokatu beharko dituzte.

20 arraunlari taldean

Neguko hilabete hotzetan entrenatzen aritu ondoren, 20 laguneko taldea osatu du Aita Mari arraun elkarteak. Tartean azken unean urreratutako arraunlariak dira, ia denak ere oso gazteak. Entrenatzaile lanetan, ohi bezala, "Luxia" Olsagasti arituko da.

Josu Iribar 19 urte. Getaria.

Xabier Atorrasagasti 19 urte. Zumaia.

Imanol Amilibia 19 urte. Zumaia.

Jon Izagirre 27 urte. Azpeitia.

Garikoitz Goikoetxea 29 urte. Zumaia.

Arkaitz Azkue 29 urte. Zumaia.

Iparra Larzabal 20 urte. Azkoitia.

Aritz Salegi 19 urte. Zumaia.

Jon Agirrezabalaga 27 urte. Itziar.

Edur Osa 21 urte. Zumaia.

Iñaki Unanue 28 urte. Zumaia.

Iñaki Larrañaga 23 urte. Zumaia.

Jon Larrañaga 25 urte. Getaria.

Jokin Urkidi 33 urte. Zumaia.

Jon Larrañaga 21 urte. Zumaia.

Inge Iribar 21 urte. Getaria.

Joseba Urbieta 21 urte. Zumaia.

Mikel Etxeberria 21 urte. Zumaia.

Xabier Eizagirre (patroia) 26 urte. Getaria.

Daniel Garcia (patroia) 19 urte. Zumaia.

Luis Mari Olsagasti "Luxia" Entrenatzailea.

Antxon Alberdi Prestatzaile fisikoa.

Guillermo Murgia Medikua.



Uztailaren 25ean jokatuko da Zumaiaiko I. Triatloia

MAITANE URBIETA

Herrian proba hau egongo dela aprobeztatzuz, Zumaia-ko Triatloi Taldearen sorreraz jardungo dugu. Horrekin batera, Zumaiaiko I. Triatloiaren inguruko informazioa emango dugu eta herriko triatleta batekin, Erlantz Esteibarrekin, hitz egingo dugu.

"Zumaia Triatloi Taldea" triatloiaren zale talde txiki batekin duela gutxi sortutako kluba da, eta Zumaian eta eskualdean duatloi eta triatloi jarduerak sustatzea du helburu. Taldearen buru nagusiak Joakin Gorostola eta Bernard Caporossi dira. Klubak Elgoibarko SUMOFIC eta OKI

enpresen laguntza handia jasotzen du.

Klubaren jatorria azaltzeko, 1990. urtera jo behar dugu. Orduan, lagunartean egindako apustu baten ondorioz, 8 lagunek itsasadarrera salto egin zuten, Talaiepean, eta, zenbait estuasun izan ondoren, Arbustaingo arrauplara iritsi ziren. Getariara mountain bikez joan eta etorri ziren, eta 3 kilometroko korrikaldia egin zuten. Azkenean, 8 aitzindari horiek proba amaitzea lortu zuten eta urtero balentria bera egingo zutela zin egin zuten. 10 urte geroago, probak arrakasta handia izan zuten; izan ere, antolatzaileek 25 lagunera mugatu behar izaten zuten parte-hartzaileen kopurua. Inork ez zuen imajinatu lagun

horietako batek -Iñaki Aizpuruak, hain zuen- zenbait Ironman egingo zituenik (3,5 km-ko igeriketa + 180 km-ko txirringularitza lasterketa + 42 km-ko korrika lasterketa).

2003an, Zumaian uztailean antolatutako triatloi proba azpimarratu behar da. Bertan, Zarauzko, Azkoitiko, Beasaingo, Donostiako Atletikoko eta Zumaiako klubetako kideek hartu zuten parte. Proba horretan, Zumaia Triatloi Taldeak banakako eta taldekako garaipenak lortu zituen; banakako garaipena Paulo Arrizabalagaren eskutik iritsi zen. Halaber, gogoratu mehar da taldeko bi triatletak, Asier Mendiak eta Ander Kerejetak, distantzia luzeko munduko triatloi txapelketan parte hartu zutela. Proba hori egiteko, 7 hilabetez entrenatu ziren Lubaki kiroldegiko instalazioetan, eta denbora tarte horretan, gutxi gorabehera 4.500 km egin zituzten bizikletaz, 210 km igerian eta 440 km korrika.

Hala eta guztiz ere, Zumaia Triatloi Taldeko kide guztiek ez dute triatloia egiten. Hala eta guztiz, klubaren aldakortasunak adierazten duenez, klubeko ia kide guztiek parte hartzen dute herri probetan; hala nola, igeriketa zeharkaldietan, zikloturismo irteeretan, oinezko kros lasterketan, maratoi erdietan eta maratoietan. Klubeko kide horientzat, garrantzitsuena gustukoen duten kirolaz gozatu ahal izatea da, bai entrenamenduetan, bai probetan, beti ere, federazio baten babesean.

Une hauetan 36 federatu ditu Zumaia Triatloi Taldeak. 36 horien artean neska bakarra daukate, Olatz Gabarain, hain zuzen ere. Federatuen kopurua igotzea gustuko litzazieke Zumaiako Triatloi Taldeko kideei. Horregatik, jendeari animatzeko eskatzen diete. Beraz, korrika egitea, igeri egitea edo bizikletaz ibiltzea gustatzen bazaizu, eta kirol horiek Euskal Triatloiko Federazioaren bermearan eta babesaren pean egin nahi badituzu, eman izan Zumaia Triatloi Taldean. Federa zaitetz!

Taldeak Zumaia eta eskualdeko duatloi eta triatloi jarduerak sustatzea du helburu.

Zumaiako I. Triatloia

Uztailaren 25ean goizeko 10:15ean hasiko da Zumaiako I. Triatloiari. Parte-hartzaileek 1,5 km egin beharko dituzte igerian, 45 km bizikletaren gainean eta azkenik, 10 km korrika. Proba Itsas Kiroldegian hasiko da. Bertatik, Paolerraino joan beharko dute triatletek, han buelta eman eta arraulara. Behin arranplan daudela, bizikletak hartu

beharko dituzte eta Azpeiti aldera abiatuko dira. Azpeititik Meagara joango dira eta, ondoren, Getariara jaitsi eta handik Zumaiara. Igerian eta bizikletan ibili ostean, korrika egiteko ordua iritsiko zaie parte hartzen dutenei.

Triatloi honetan irteteko nahitaezkoa federatua egotea. Inskripzioa 18 eurokoa izango da eta dirua Laboralean sartu beharko da, honako kontu zenbakian: 3035 0037 43 03711048117

Antolatzaileek 250 partaideko muga jarri dute, proba gehiegi ez luzatzerik nahi ez dutelako. Izan ere, horrela proba antolatzeak lan handia eskatzen du. Triatloian parte hartu nahi duenak uztailearen 18rarteko epea du ordainketa eta izena emateko.

Triatloi bat egiteak esfortzu handia eskatzen du, baina esfortzu hori saritua izango da denborarik onena lortzen dutenek saria izango dute ordainetan:

SENIOR GIZONEZKOAK

- 1º- 450 euro + txapela + garaikurra
- 2º- 300 euro + garaikurra
- 3º- 150 euro + garaikurra

BETERANOAK B1, B2 ETA B3

- 1º- Garaikurra

SENIOR EMAKUMEZKOAK

- 1º- 450 euro + txapela + garaikurra
- 2º- 300 euro + garaikurra
- 3º- 150 euro + garaikurra



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIAMOTOR

Santixo auzoa, 22
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161

ILEAPAINDEGIA



San Telmo, 12
Tel. 943 860760

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 943 143058

erlantz esteibar triatleta

Triatloirako nola prestatu

MAITANE URBIETA

Triatloi batean parte hartzea ez da txantxetako kontua. Prestakuntza handia eta entrenamendu asko behar da.

Zumaian gero eta jende gehiago ikusten da bai korrika, bai bizikletan... Horieta bat Erlantz Esteibar da. Berarekin aritu gara triatloieren inguruan elkarrizketan eta bere esanetan triatloi batean parte hartzeko 4 hilabetetako entrenamendua nahikoa da. Kontua izango litzateke hila-bete gimnasioan preparatzea eta gainerako 3 hilabeteetan diziplina bakoitza prestatzea. Entrenamendu mota hau triatloi bat amaitzeko nahikoa omen da. Hori bai, helburua lehiatzea denean 8 hilabeteko entrenamendua behar da. Lehen 3 hilabeteetan gimnasioan entrenatu eta ondoren, proba bakoitza prestatu.

Triatleta batzuk euren kabuz egiten dituzte entrenamenduak. Beste batzuk, berriz, zentroetara jotzen dute. Zentro hauetan, komeni zaizkien entrenamenduak jartzen dizkiete eta janaria ere zaindu egiten dute. Kirolariak zerbaiten gabezia izanez gero, (burdina, bitaminak...) pastilla gehigarriak hartzen ditu zentroak emanda.

Nola bururatu zitzazun Zumaia-ko Triatloi Taldean sartzea?

Triatloia kirol indibiduala da, baina hala ere, karreretara joan behar baldin bada edo lizentziak egin behar badira, ona da talde baten barruan sartuta egotea.

Zer nolako abantailak ditu talde bateko kide izateak?

Talde bezala zauden momentutik subentzioak eskatzea daukazu, babeslea bilatzea daukazu eta horrek azkenean zuri ere zerbait ematen dizu. Talde bezala egotean, federatu egiten zara eta horretaz gain, talde barruan dagoen giroa ere oso ona da. Karreretara elkarrekin joan, elkarrekin geratu... Gainera Zumaian jende gehiago dagoenez eta bakoitza bere erara ibili beharrean ona da talde bat egotea. Hala ere, triatloia kirol indibiduala da eta bakoitzak bere entrenamenduak egiten ditu.

Zeintzuk dira triatleta on baten ezaugarriak?

Gogoia edukitzea da kontua, gauza denetan bezala. Gero ere kontuan eduki behar da zer nolako motibazioa duzun eta zenbat denbora dau-



“Triatloiak kirol indibiduala da eta bakoitzak bere entrenamenduak egiten ditu”

kazun. Izan ere, 3 diziplinak prestatzeko denbora behar da, baina hori dena motibazioa da. Gogorik ez baduzu ez duzu ezer preparatzen eta triatloia bezalako kirol batean orduan eta gutxiago. Norberak dituen fakultateak ere hartu behar dira kontuan.



Antonio Etxabe



Gizonezkoen erropak

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407

ZALLA

Taberna - Erretegia

- * plater konbinatuak
- * otartekoak
- * oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 943 862387

Zer egin behar da triatleta on bat izateko?

Zaindu egin behar zara eta denbora eskaini. Hor goian ibiltzen den jendearena ez da kasualitatea. Denbora asko dedikatu behar zaio. Orduak eta orduak sartzea da kontua.

Igeriketa, korrika edo txirrindularitza? Zein duzu gustukoen?

Igeriketa eta korrika ditut gustukoen. Bi diziplina horietan ondo moldatzen naiz. Bizikleta aurten ia ez dut ukitu ere egin. Bizikletan ibiltzen orain hasi naiz.

Zenbat triatloitan hartu duzu parte?

15-20 triatloitan hartuko nuen parte.

Ze triatloitan aritu zara ondoen?

Azkena Lekeitioko Triatloian atera nintzen. 380 lagun irten ginen eta hamahirugarren geratu nintzen. Laredokoa hamargarren egin nuen, eta Arcachongo Triatloian, berriz, hamaikagarren.

Asko zaintzen zara?

Zaindu beharra dago. Hori bai, denetik jaten dut. Beno, bolleria kontuak albo batera utzita. Eta gero, parrandak ere gutxi, zeren mundu guztiak daki parrandak eta kirola ez doazela eskutik helduta.

“Igeriketa eta korrika ditut gustukoen. Bi diziplina horietan ondo moldatzen naiz”

Zumaiaiko Triatloirako zein da zure helburua?

Apuntatzen den jendearen arabera izango da hori. Triatloi berria izanda ez dakizu ze jende aterako den eta jendeak nola erantzungo duen. Urtero jokatzaren diren triatloietan badakizu zer jende aterako den eta gutxi gorabehera nondik ibiltzea daukazu. Zumaian ahal dudana egitera joango naiz.



Galdona



Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117
943 143346
Juan Belmonte, 15 Faxa. 943 861330



Basadi Auzategia, 15 Tel. 943 14 34 84 ZUMAIA

**EGUZKI
PUB**



Basadi Auzategia, 9-A 2-B

jexux etxabe mitxelena

“Ondo moldatzen ginttuan euskerarekin. Gerra zikin hura sortu eta dana puskatu zuen arte”

ABELIN LINAZISORO

Jexux Etxabe, betiko moduan, etxeko atarian ikusi det eta, lehendik geratu ginen bezala, prest dago Zumaiiko kontu zaharrak kontatzeko...

Noiz jaiotzen?

1925ean; beraz, gerra sortu zanean 11 urte nizean.

Gerra aurretik eskolan-eta zer moduz ibiltzen zineten?

Ni sei-zazpi urte arte Tintuxenean ibili nittuan. Maistra Axuntxion Tintuxa uan, beno, sasi-maistra hoixetakoa, baina zorrotza uan. Erakusten ona. Orazixo danak, leitzen, eskribitzen eta multiplikatzen hantxe ikasi nizean. Hitz egin, berriz, euskeraz egiten ginien, beno, erderaz ere pixkat egiten zian hark, baina jeneralian euskeraz, gero, maristetan hasi ginanean han dana erderaz, baina hermano Robertokin astean behin irakurri eta idatzi euskeraz egiten ginien. Ondo moldatzen ginttuan euskerarekin. Gerra zikin hura sortu eta dana puskatu zen arte.

Zer moduzko irakasleak itzulan maristak?

Onak. Oso onak. Eta gauza bat esango diat gainera: Maristak aurreneko aldiz honea etorri zanean, marista haiekin lehenbizi jarri zianak, hermano Inazio eta hermano Pablo-eta omen itzulan, oso ondo kolokatu itzulan.

Egurrik ematen al zuten?

Beno, egur kontu hori gerokoa dek, Merzedaxuekin. Maristak ere noizean behin bazikien ematen, bai, baina hauen zigorra



“Alondigako goixan zinea botatzen zigutean, Rin Tin Tin eta horrelakoak.

Zine parrokiak. Perrondi bat balixo zian, baina perrondi bat ere eduki egin behar, hor zeok koxka!”

gehixio izaten uan estudiantzekoa. Paretan kontra jarri eta estudiantzera ikasi arte. Parrokixan igandero arratsaldetan bezperak izaten itzulan eta hara jutun ez zianak ostegun arratsaldean jai egin beharrek eskolara. Izorrai. Meza nagusita ere binan bina jarrita eskolatik jutun ginttuan eta jutun ez zian zigorren bat seguru zian.

Eta zinera joatea? Debekatuta al zegoan?

Eskola garaixan ixkutuan jutun ginttuan eta enteratzen bazian zigorra. Beno, baina, umiak aparte baginien guretzako zinea. Don Wenceslaon garaixan, hor, alondigako goixan zinea botatzen zigutean. Rin Tin Tin eta horrelakoak. Zine parrokiak. Perrondi bat balixo zian, baina perrondi bat ere euki egin behar, hor zeok koxka. Hamalau urtetik aurrera hasi ginttuan zinera jutun. Eta orduan uste diat zine Maitena bakarrik zegola. Hotel Amayan geroxeago jarri zian zinea.

Zuen mutil koxkor garaian ba al zen hemen sagardogetirik?

Bai. Asko. Nere goguan sagardotexak egongo itzulan, ba... beatzi-hamar bat.

Baina ez uan oaingo txikiteoa bezala. Banko luze batean jarri, basoka bat sagardo lasai edan, sardingar pusketa batekin... eta danak tertulixan presarik gabe. Dirurik ere ez zegoan-eta! Sagardotexak zibitian, ba... Bat bestearen aurrez-aurre Upela (orain Anade) eta Elorriaganekea (orain Gure Txokoa), Erribera kalia ere bai. Txortengua (Goikoneko aurrean), Uxarruanekua (orain Traipia), Ardantza bidean, Gaur Txorin, Karrakolonekoa...



Gerra ondorenean itxixen jun ituan. Azkena itxizen uste diat Upela izan zala. Lehen sagasti asko uan eta sagardoa egin ere asko egiten uan. Hor estazixo gainean ikusten dan mendu hori dana sagastiz betea zegoan.

Gerra piztu zenean hemen Batzokiak zer jokabide hartu zian?

Ba, batzuek frentera boluntaixo jun ituan eta faxistak herrira sartzeko zeudela, ba, gehixenak Bizkaira aldegin zien. Ihesean. Hemen bi talde nagusi zibitian: abertzaleak eta karlistak.

Molaren tropak sartu zirenean nola geratu zen herria?

Nola geratuko uan, ba? Hutsa. Goiz hartan, irailak 21, goizeko bostetan erretaguardiakoak zubi txikixa bota zien, faxistei bidia ixteko, jakina. Goiz hura oso tristea izan uan. Gu itxian bildurrez gibitian eta hala-

“Ikaragarrizko tristura izan uan hura Zumairako. Herria geratu uan orduan, beno, Zumaixak izan dun tristura haundixenetakoa. Danok negarrez...”

ko batean atea tok, tok tok, jo zien. Hura sustua. Goiko panaerua uan eta esan zigun: Barbero Kojuenetik artua eamaten ai dituk. Gure aitta Arrateneko karbone-rua uan eta almazenera jun, karrua hartu, lepo bete eta almazengan ixkatuta ginien, eta zaku batzuek, jakina, etxera eraman ginien. Handik egun batzuetara, ordea, baten batek faxistei, edo karlistei edo puñeta hauei parte eman eta zaku danak kendu egin zitizkuen.

Hemen, orduan, batzuek boluntario eta besteak alde eginda, herrian jende gutxi geratu zizaten, baina hala ere zumaier denok zekiagu 1937an jende pila handi bat herritik bidalia izan zela. Konta ezak hori.

Gu ere tartean gitxibiztian. Aitta, ama, arreba eta ni. Otsailaren 13a uan. Euri txikixa ari uan, gainera, eta gu bialdu gintun gizona goiz hartan miradoretik guri begira egon uan. Francon aldeko

alkatea. Hark bialdu gintun. 36an Arrate zegoan alkate, baina, jakina, hark ere ihes egin behar izan zian. Gu bialdu eta gainetik miradoretik begira. Orduan ez zegoan oain bezela, guardasolik, ateririk, gabardinik, edo horrelakorik. Txaketa zaharrak, bota zaharrak-eta jantzita, eurixa goixan beheian genuela aldegin ginien. Blai egiten.

Zergatik izan zineten bidaliak?

Ba, guk bi anai ginixkien Bizkaira junda, gorrixeta junda esaten zien orduan. Bi talde bereizten ituan-eta orduan, Francon aldekoak nazionalak eta kontrakoak gorrixak. Anai batek 16 urte zizkian eta besteak 24. Ba, haixek jun zialako gu herritik kanpora. Autobusetan eta kamioietan. Autobusak zuri-gorri batzuek Larrondon egoten zianak. Eta eskoltatuta, e! Zumaiko karlistak eskoltatuta. Ikaragarrizko tristura izan uan hura Zumairako. Herria geratu uan

OSTOLAZA

BURDINDEGIA

Aita Mari auzategia, 10 behea
tel: 943 86 16 66
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com

Nikol  **Enea**

TABERNA

Amaiako plaza

orduan, beno, Zumaixak izan dun tristura haundixenetakoa izango uan hura. Danok negarrez... Oaindik ondo akordatzen nauk... Beno, ba, sei edo zazpi kamioi eta autobus bete ginixkien, 300 lagun edo izango gintuan-eta, emakumeak eta umeak gehixenak. Ondarrura eramanak izan gintuan eta Lekeittioko bidean laga zigutean. Ondarrua hartuta zegoan, baina Lekeittio ez. Bidean danba, danba, tiroak eta esplozixuak aitzen ginizkien eta gu kuxkurtuta, makurtuta, bildurtuta. Kamiñua dana puskatuta zegoan, frankisten beikuluak ez pasatzeko, noski. Zumai-xan zubixa puskatu zuten bezela han bidea. Eta gu hantxe, gora eta behera eta ahal zen moduan. Akordatzen nauk gure amak Xabier Albizu eraman zula besoetan, Rufinak Lore eta Mikelekin nahiko zian-eta. Izan ere, orduan ez zibiztian ez maletarik eta ez ezer. Pardelak eskuetan eta traste zaharrak ahal zen moduan eraman behar, eta gainetik umeak.



Baina zuek beste anaia gazteena bazenuten orduan. Non geratu uan Joxeba?

Ba, oaintxe esango diat. Hauek herrixan sartu zianean, guk badaezpada ere amona ekarri ginien Orixotik. Eta gu bialduak izan ginanean, amona itxian geratu uan Joxebakin. Bestela, beno, etxe dana erreki-satu egingo zien. Orduan dana erreki-satu egiten zien, koltxoiak, oheak, itxian

zeuden gauza guztixak eraman, edo puskatu, edozer gauza egiten zien. Guk horretan suertea izan ginien amona umiak in itxian laga gendulako. Beno, ba, aurrera jarraituz, Lekeittio aldera goazela gudarixak bidera irten eta haixek lagundu giñuzten herrira ailegatzen. Batzokira eraman eta ez zekiat zer jan genun, baina lehenbiziko aldiz han ezagutu ginien ogi beltza. Han egun osoa pasa eta iluntze aldera berriz ere autobusetan Forura. Gernika ondora. Zumaitik ixa gehixenok. Hantxe Forurako bidean hartu ginien zartada haundixena.

“Kanta frantses bat kantatunian eta urdaiazpikoa taloaz eman zidan! Joe! Harrezkero, Txo, kantauxu! Eskatzen zidan bakoitzean mantsuagatik kantatzen nian, bai!”

TXALAPARTA
OPARIAK

Angeles Sorazu, 2
Tel. 943 143089

SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabiltita
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis Tel./Faxa: 943 861416



ilespaindegia

I Z E T A

Urumea, 6 Tel. 943 862083

LEIZE
taberna

Juan Belmonte, 6



taberna
JUSTA

eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20

Baxakarte ikusi ginien eta arrebakin hizketan hasi uan. Eta halako batean, hilak ere badira zumaiarrak esan zioan, eta arrebak, zein?, ba, bat honelako eta bestea Xendokua. Xendoko zein?, arrebak, eta besteak, karboneruaren semea-edo entzun dinat. Horrelaxe jakin ginien hamasei urteko anaixa hil zikula. Villareal de Alaba (Legutio) hartzera jun zianean izan uan. Han hilak asko izan omen ittuan. Gaztea Itxarkundiagako gudarixa uan eta zaharra Sasetan ibili uan. Bi anaixak beti batzokixan ibiltzen ittuan, han bazegoan Euzko Gazte Kirolezaleak taldea eta haixek beti han, zernahi egiten, antzerkiak, edozer. Gu ere mutil koxkorretan beti batzokixan sartuta ibiltzen ginttuan. Osaba bat ere afusilatu egin ziguten. Hau Orixokoa. Faxista hauek abertzale bezela parte eman eta Getaixan afusilatu zien. Beno, ba, Foruan praileen

konbentuan egon ginttuan. Ikusten denez, egun haietako mogimenduakin-edo praileak aldegin zibititan. Eta hantxe ibiltzen ginttuan Gernikara ixa egunero juten, eta hara nundik, Gernikan egun batean hemengo marista bat ikusi nian. Hantxe geratu ginttuan biok hixketan, baina gero zer gertatuko eta, gerra ondorenean Zumaira ekarri zien atzea berriz, eta orduan, jakina, eskolan dana Franco eta horrelakoak ittuan beti eta historiako liburuan gerrako orrira ailegatzen zanean "Gernika fue bombardeada por los rojos-separatistas" jartzen zian eta hark orri hura pasa egiten zian. Beti. Bonbardeo dana berak ikusi zian-eta! Beno, ba, Gernikan zortzi-hamar egun egon eta handik bakoitza ahal zun tokira eramana izan ginttuan. Gu Ibarrangeluko mendi tontor bateko baserri zahar bate-

ra. Hara Xendoko Erramun zegoan eramana bakarrik geratu zian amama eta ilobatxoari laguntzera. Foruan Zumaiar danok sakabanatuak izan ginttuan, batzuek Bilbora, besteak Amorebieta-ra... Gu sei ginttuan. Etxeko laurok eta Xendoko Teodoro (Erramunen anai gaztea, oaindik mutil-koxkorra) eta Nati. Beti alkarrekin ibili ginttuan. Baserri hartan soroko lanetan laguntzen ginien. Bertako amama oso ona uan. Nik behin maristetan ikasitako kanta frantsez bat kantatu nian eta urdaiazpikoa taloaz eman zidan! Joe! Harrezkero, "Txo, kantauxu!", eskatzen zidan bakoitzean mansuagatik kantatzen nian, bai! Hura niretzat banketea izaten uan!

jarraituko du...



**TV-VIDEO-HIFI
ELEKTROGAILUAK
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK**
ERRIBERA, 8 943 861694

AROTEGIA

Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505



Tel. 943 860000

ERROTA
OPILOKINDEGIA



Enpresa Haur Bizitza, 20750 Zumaira. Tel. 943 143057. www.ekin.es

**Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet**



OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6

Tel./Faxa: 943-143057

Z U M A I A




Arantza Aramendi

EGUZKI
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea

943 86 22 65 - 609 46 56 37



Emilio Perez
Elektrigavio, jarebitze eta instalazio
elektrikoak salmenta eta konponketa

ADI

**NASADI 28
20750 ZUMAIA
GIPUZKOA**

tel. fax. 943 535 157

E-mail: adie@euskaltel.net

**AITA MARI
KAFETEGIA**

Julio Beabide, 15 Tel. 943 861395 ZUMAIA



Arkupe

*Okindegia
eta gosariak*

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521

Zumaiako arrantzaleen desgrazia 1879-1-8an

Oraintxe 125 urte. Zumaiako txalupa bat, San Jose izenekoa, bisigutara atera zen itsasora. Hogei lagun. Halako batean, ustegabeen, ekaitz bildurgarri bat sortu eta... hara komeriak!

Txalupa ondoratu.

Estuasun beltz haietan, eskerrak hala ere, beste txalupa bate, Agustin Andonegi patroizuelarik, eskua luzatu zien ahaleginean, eta hogeitarrantzaleetatik zazpi salbatu zituen. Besteak han gelditu ziren itsaso haserretuan.

Hauetxek izenak:

Jose M^a Aizpurua, 40 urtekoa, ezkongabea.

Jose Luis Agirrezabalaga, 32 urte, ezkondua.

Jose Felipe Amilibia, 47 urte, ezkondua.

Sabas Amas, 50 urte, ezkondua.

Torkuato Roke Azkue, 50 urte, ezkondua.

Juan Antonio Egaña, 25 urte, ezkondua.

Julian Romualdo Eizagirre, 19 urte, ezkongabea.

Inazio Esteban Etxabe, 19 urte, ezkongabea.

Jose Etxabe, 48 urte, ezkondua.

Manuel Inazio Gomez, 28 urte, ezkongabea.

Francisco Iraundegi, 50 urte, alarguna.

Francisco M^a Zubia, 22 urte, ezkongabea

Salbatu zirenen izenak ez ditugu ezagutzen.

Doinua: "Lagundurikan denoi"

-1-

*Kanta triste batzuek
arrantzaliari
uste dugu dirala
jartzia komeni,
hoiek daukaten bizi
negargarriari,
izan gaitezen danok
hoien errukari
bihotzez eskatuaz
Jaungoiko Jaunari.*

-2-

*Hilbeltzaren eguna
zortzigarrenian,
arrantzara atera
ziraden goizian;
Gero tenpestade bat
mendebal, haizian,
trezak botata altxatzen
hasi ziranian,
milagroez ez zituen
danak sartu urpian.*

-3-

*Trezak bertan utzita
etxera abian,
jira-bira eginik
guztiak ian-ian;
gero pasa zitzairen
bidian erdian:
Zumaiar txalupa bat
zegoen desgrazian,
bai sokorritu ere
alegin guzian.*

-4-

*Hogeitarrantzaleek
tripulazian
zumaiar txalupa horrek
galduta itsasuan;
Agustin Andonegi
Bere azian,
nahiz bera ibilirik
ia-ia galduan,
zazpi hartu zituen
al zuen moduan.*



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

asteguntan: 16:30-20:00
larunbatetan: 10:30-13:30

Basadi, 7 behe
Tel. 943143310
Tel. mugikorra: 608- 775508

Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean

Karmengo Ama, 14
E-20749 **Arroa** (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net



Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L





-5-
*Iñola arrimatu
ezinda salbatu,
halako egualdia
zitzaioten sartu.
Danak ohiuka: "Arren,
Jaunak, gu're hartu!"
Haien antsiz bihotzak
ziraden urratu,
bainan inola ere
ezin anparatu.*

-6-
*Berak ia galduta
gizonak salbatzen,
pensa zazute hoiek
balorerik duten;
beste gehiago ere
hartu nahi zituzten,
bainan itsas gaiztuak
ez zioten uzten,
ondo penaz han utzi
zituzten itotzen.*

-7-
*Ai, arrantzaliaren
bizi penosua!
Ofiziu hori ez da
inbidiosua;
hioen irabazia
ain da kostosua;
gure Jaungoiko maite
amoriosua
arren bedeinka zazu
berriz itsasua.*

Oharrak:

- Ez dakigu nongoa zen Agustin Andonegi. Mutrikuarra akaso.
- Bertso hauen egilea ere ez dakigu nor izan zen.
- Hamabi bertso dira, baina zazpi hauek aukeratu ditugu.
- "Auspoa" liburutik jaso ditugu bertso zahar hauek, zumaiar denok kanta ditzagun.

GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

• denontzat irekia

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuetarako departamentua



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

agenda

UZTAILA

Uztailak 9tik 11ra

Narrondo auzoko Jaiak

Uztailak 10, larunbata

22.00etan Mari kalean, Beheko Plaza eta **San Pedro abesbatzen udako kontzertua.**

22.30ean Odieta pelotalekuan **profesional mailako zesta partiduak**

Uztailak 11, igandea

11.00etan **Piraguismoko froga,** Urolaren Igoera eta Jaitsiera 2004.

18.00etan Eusebio Gurrutxaga plazan **dantzaldia Basajaun taldearekin**

Uztailak 15, osteguna

LAIA erakusgelan, Pintura erakusketaren zabalte ekitaldia: **Zumaia eta Eibarko bost artistaren bilduma**

Uztailak 17, larunbata

22.30ean Odieta pelotalekuan **profesional mailako zesta partiduak**

Uztailak 18, igandea

18.00ETAN Eusebio Gurrutxaga plazan, **dantzaldia** Kiñu taldearekin

19.00etan **kale antzerkia "ZANGA"**

Uztailak 24, larunbata

18.00.00etan Eusebio Gurrutxaga plazan Elustondo anaiarreben **trikitixa doinuak.**

22.30ean Odieta pelotalekuan **profesional mailako zesta partiduak**

Uztailak 25, igandea

10.00etan Zumaia **Triatltoa**
12.30ean Bidasoako Folklore Jaialdiko **dantzarren desfilea**

18.00etan Eusebio Gurrutxaga plazan, Bidasoako Folklore Jaialdiko **ikuszuna.**



SANKRISTOBALAK NARRONDO AUZOAN

Uztailaren 9tik 11ra bitartean Sankristobalak ospatuko dituzte Narrondoko auzoan.

Jai giroa eta alaitasuna nagusi izango dira asteburu honetan.

Uztailak 31, larunbata

18.30ean plazan hasita, **haur antzerki-kalejira: XORO DOKTOREAREN EROAK**

22.30ean Odieta pelotalekuan **profesional mailako zesta partiduak**

ERAKUSKETAK

Alondegian

Uztailak 3 - 15

AMNISTIA INTERNACIONAL "EMAKUME ESKUBIDEAK,.."

Uztailak 15 - Abuztuak 1

Juan Eloy - Oleoak atean

Abuztuak 3-16
Inaki Olazabal

Abuztuak 17-31
KALEKO PINTURA LEHIAKETAKO LANAK

Irailak 9-26

Bertil Lagerström - Pinturak eta argazkiak

Laia aretoan

LAIA 2004 erakusketa: uztailaren 15etik abuztu amaierara,

Zumaia eta Eibarko 5 artistaren bilduma: **Anton Egiguren, Aitor Etxeberría, Juan Karrillo, Keixeta eta Valentin Manterola.**

Turismo Bulegoan

Juan Ramon Llavori-ren Donejakue bideko argazki bilduma. Abuztuan

Pintura Lehiaketa:

KALEKO PINTURA LEHIAKETA: abuztuaren 15ean, goizeko 9.00etatik 14.00etara.

TOMAS TABERNA

- APARTAMENTUAK -

- menuak
- plater konbinatuak
- pintxoak eta ogitartekoak

E. Gurrutxaga plaza

943 86 19 16



Alta-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861569



Mota guztietako altzariak

Xanti Osa

Amia plaza, 7
tailerra: 943 860914
denda: 943 862385



MENDI - ONDO C.B.

ELEKTRIZITATEA

Urola Plaza, 21

Tel. 943860074 - 943861569



Itzurun, 1 Tel. 943 143224



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 862620

Hortz klinika

Mozès Hiriart eta SOULIER

Odontologoak

- * Odontologia orokorra
- * Periodontzia (kirurgiarik gabe)
- * Endodontzia
- * Implantologia
- * Ahoko prebentzio eta errehabilitazioa
- * Protesia
- * Hortz estetika (zeramika metalarik gabe)

Implantologia: teknika berrienei esker, implanteak jar ditzakegu, nahiz eta hezur gutxi izan.

Larunbatetan egun osoa zabalik

Maria Etxetxiki kalea, 1 behea. • ZARAUTZ • tfnoa: 943-130278

Implantologia: teknika berrienei esker, implanteak jar ditzakegu, nahiz hezur gutxi izan.

ile-apaindegia



Solarium

ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21



Casa BASUSTA



**CASA
BASUSTA**
LORATEGIA

Ezkontzak, Bataioak, Jaunartzeak
Lore-zentruak, Koroak,
Landare naturalak eta artifi.
Zeramika-lanak eta zumezko

**%20 BEHERAPENAK %15
ERAKUSKETA ALDATZEAGATIK**



Etchez etxeko zerbitzua

Santiago auzoa, 18 TEL: 943 862611

ERROTA



OPIL OKINDEGIA

*era guztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60